


Astekaria

BARREN

elgoi



**Nola bizi
zahartzaroa?**



kutxa fundazioa

gipuzkoa donostia kutxaren gizarte-ekintza

3 LAU HANKATAN

"Krisiaren aurrean, talde kontzientzia falta dela nabaritzen dut, indibidualismora jo dugu elgoibartarrok" **Alberto Ansuategi.**

6 ERREPORTAIA: SAN LAZARO EGOITZA

San Lazaro egoitzan bizi izateko bi baldintza bete behar dira: 65 urte-tik gorakoa izatea eta Gipuzkoan jaio edo bizi izatea.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: ZAHARTZAROA: ETXEAN ALA ERRESIDENTZIAN?

Juan Arrieta: "Nola bizi gaitzke bakarrik etxe batean? Bada, lehen-dabiziko baldintza osasuna izatea da."

Esperanza Odriozola: "Mundua erabat aldatu da eta soluzioa erresi-dentziak dira."

12 BERBETAN

"Ikasketek norberaren gaitasunak garatzen erakusten dute."

Ramon Unzilla.

14 KIROLA:

GAIA: ALBERTO REVUELTAK EUROPAKO TXAPELKETAN SARTZEKO AUKERA

ELKARRIZKETA: **Amaia Rubio.**

16 ELKARTEETATIK BUELTAN

MUTXIKIN: KALETARREK SORTUTAKO AUZOKO ELKARTEA

17 KULTURA : LAZKAO TXIKIRI AGUR

FARMAZIAK:

17, larunbata: YUDEGO

18, igandea: YUDEGO

19, astelehena: BIDASOLO

20, asteartea: BIDASOLO

21, asteazkena: BIDASOLO

22, osteguna: BIDASOLO

23, ostirala: ORMAZABAL

OKINDEGIAK:

18, igandea: FOTERO



PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak741155

Txanda hartzeko.....743354

Alkoholiko Anonimoak740385

D.Y.A (anbulantzia).....464622

Gurutze Gorria743864

Mendaroko Ospitala.....756264

Drogomenpekotasun Zerbitzua

(Anbulatorioa)743936

Odol Emaileen elkarte.....741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak740442

PESA (Eibar)112131

Taxi Geltokia740898

UDALA

Euskara Zerbitzua744366

Kultura eta Kirol Zerbitzua...742158

Ongizate zerbitzua743736

Udaletxea741050

Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142

IMI741196

Kontsumo Bulegoa (OMIC) .743088

Liburutegia.....743525

Musika Eskola.....742145

Polikiroldegia.....741361

Postetxea741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza740296

Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79

I.M.H.....74 41 32

Institutua74 02 67

Ikastola.....74 27 00

L.H.I.....74 31 00

Pilar Ikastetxea.....74 13 31

TXANDAK

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



© KOKOE 1993

Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkartea
☎ 74 16 26

Laguntzailea
Elgoibarko Udala

Zuzendaritza
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirreazaldegi

Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteburu

Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua

Kazetaria
Ainhoa Lodoso

Maketatzailea
Maite Rementeria

Publizitatearen diseinua
Luis Mari Zubiaurre
Maite Rementeria

Publizitatea
Amaia Leiaristi

Administrazioa
Josune Fernandez
M. Angeles Ortuoste

Kolaboratzaileak
Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Agur Miren Barandiaran, Lorea Gorostiaga, Hasier Etxeberria, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, German Meabebasterretxea, Susana Mugika, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Lorea Perez de Albeniz, Sagundo Raigoso, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta, Javier Zarzuelo.

Banaketa arduradunak
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia

Helbidea
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

Tirada
3.000 ale

Lege gordailua
SS-1.038/92

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

LAU HANKATAN



Alberto Ansuategi

Kukuaren kantua

BARREnerako idatzi dudan bakoitzean gaia aukeratzeko orduan izan ditut zalantzarik handienak eta herri-

astekaria izanik herriari dagozkion gaiei buruz idazten saiatu izan naiz. Baina, Hasierrek aurreko batetan zioen bezala, zaila da herritik kanpo bizi eta herritarrei herriari buruz idaztea.

Dena dela, honako honetan zertaz idatzi nahi dudan berehala erabaki badut ere, zer edo nola idatzi izan da buruhauste gehien ekarri dizkidana, Elgoibarrek jasaten duen atzeraldi ekonomikoaz gauza asko eta hamaika eratarata esan bait daitezke. Krisiaz idatzi nahi dut, baina zuengantatu nahi dudan ikuspegiak ekonomia eta politikaren hesparruetatik at, giza ikuspegi sasi-filosofiko bat izan nahi du. Ez dizuet hitzegingo azken hamar urteotan Sigman galdu diren 400etik gorako lanpostuei buruz, ez eta herriko dendariak jasaten duten salmenten jetsierari buruz ere, azken batetan zuek nik baino hurbilagotik bizi bait dituzue guzti hauek. Ez dut hitzegingo, ezta ere, gobernu sozialistak, Gasteizko agintariak, Alemaniako Bundesbank-ak edota euskal enpresariak egoera honetan izan dezaketen erantzunkizunei buruz, hori, ni baino adituagoek astekari hau ez den beste nonbaiten egin beharko luketen zerbait delako. Nire asmo bakarra elgoibartar xume batek bere herriaren egoerari buruz izan ditzakeen zenbait iritzi edo kezka plazaratzea litzateke.


Herriko egunerokotasunean murgildua ez banago ere, Elgoibarrera hurbiltzen naizen bakoitzean zerbaiten falta nabaritzen dut. Aitortu beharra dago Elgoibarrek bere historian zehar iskanbila eta arazo ugari izan dituela arlo ezberdinetan. Honek

herritarrak banatu egin ditu eta sendatu gabeko zauri asko badira oraindik ere. Tamalgarria da gurea bezalako herri txiki batetan elkarlanean ezberdintasun eta gatazka hauek gaingiditu ez ahal izatea, baina ukazina da, batera edo bestera, arazo politiko eta sozial hauei aurre egiteko jendeak talde kontzientzia erakutsi duela. Krisiaren aurrean, haatik, talde kontzientzia hau falta dela nabaritzen dut; indibidualismora jo dugu elgoibartarrok, bakoitzaren "superbientzia sena" piztu du krisiak eta arazo kolektibo bat litzatekeena milaka arazo partikular bihurtu da.

Elgoibarko herriaren egoera kezka-garria da eta zuzenki kaltetuak ez gaudenok ere zeharka nabaritu beharko ditugu atzeraldi honen ondorioak. Aurrera egingo dugula ez dut dudatan jartzen, baina ez al da errazagoa izango denok batera saiatuz gero?

Jende askok uste izango du herritarrek ezer gutxi egin dezaketela ekonomi krisia konpontzeko, eta ziur asko arrazoi faltarik ez dute izango. Halere, Ekonomiaren lokarriak maneiatzen dituzten Gasteizeko, Madrilera eta Bruselaseko "teknokratak" garraixika iratzarri beharko genituzke. Jakin dezatela gure herrian INEMeko zerrendetan 800 elgoibartar langabetu agertzen direla, jakin dezatela 430 etxebizitza hutsik dituen herri batetan gazte asko gurasoen etxean bizitzera "behartuak" ikusten direla inoiz erosi ezin izango dituzten beste 124 etxebizitza eraikitzen diren bitartean, jakin dezatela 950.000 metro karratutako lur industrialak duen herri batetan enpresa asko hersteke arriskuan aurkitzen direla, jakin dezatela...

Oraingoz nik zera dakit: udaberriko lehen kukuaren kantak sakel hutsik harra-patu gaituela.



DEKORAZIOA

**PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

Fotero
OKINDEGIÀ
OPILDEGIÀ

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Hirugarren adinekoen soinketa

Hirugarren adinekoen soinketa taldeari buruz, aldizkari honen 10. zenbakian argitaratu zen artikulua dela eta, Gizarte-Ongizate batzordeak, talde hau osatzen duen kirolarietako batek esandakoa argitzea bidezkoa dela pentsatzen du.

Aipatutako idatzian, talde honek egiten duen ekintza Gizarte Segurantzak ordaindu behar lukeela adierazten da. Sail honetatik, ihardun horien kostuek %100eko dirulaguntza dutela adierazi nahi dugu.

Gipuzkoako Foru Diputazioak monitorea ordaintzen du eta Udaltxeak ihardunaren lokaleko alojera. Hau dela eta, soinketako talde honen kostua dohakoa da.

Eskutitz hau aprobetxatuz, gure herritar nagusiei adre ematen diegu egitarau horretarako izena eman dezaten.

Marisabel Larrañaga
Gizarte Ongizate Saileko
Lehendakaria

“KAI-ENE Elizaz Nazkatutakoen Elkarteari”

Munduan izan diren eta diren tragedia beldurgarriak direla eta, horrela dio martxoaren 22an, Time aldizkariaren *Essay* idazkian, Charles Krauthammer pentsalariak: “Azken gizaldi erdian, munduko bizilagunen laugarrena baino gehiago, mugimendu politikoez kontrolatuta izan dugu. Mugimendu politiko horien *millennium* seta, euren erlijio kidekoen adinako famatikoa zen, eta askoz birrintzaileagoa. Sobiet, Cambodia, Korea, Txina-komunistek, etengabe eraman zituzten euren herriak azken gabezia eta zapaltzeraino, horrela, osatutako “komunismoa”ren etorrera azkartzeko, hots, XIX. gizaldiko Karl Marx profetak iragarritako *millenniuma* lortzeko. 1958an, esate baterako, Maok, sozialismoa eraikitzearen bide-tarteko urratsak sahistea erabaki zuen eta zuzen joatea komunismo osotura. Berak, hori, *Jauzi Haundia Aurreruntz* deitu zuen. Milioi David Koresh beharko lirakeke hil, txinatar kopurua erailtzeko... *millennium* gose hura asezteko. Bi hamarkada

beranduago, Khemer Gorriak bere herritar miloi bat baino gehiago sarraskitu zuen... komunismo osatua aurreruntz, jauzi batez, lortzeko. Ba al du inolako ikuspegi erlijiosok “komunismo osatuak” baino giza sakrifizio gehiago eragin?”.

Galdera horri erantzunez gero, horrela amaitzen du: “helburu edo objetibo errazei harriak jaurti baino lehenago, zera pentsa beharko luke gizarte sekular batek: bere apokalipsi gogo izugarri handia”. Horregatik titulatu du Charles Krauthammer-ek idazki hori: “APOKALIPSIA, JAINKOAREKIN ETA JAINKORIK GABE”.

Luze xamarra bada ere pasarte hori, egokia iruditut zait nere “KAI-ENE Elizaz Nazkatutakoen Elkarteak”, martxoaren 18an idatzitakoari erantzuntxo bat emateko. Geure lagun-etsaiak txuri-beltz margotzea, manikeismo farregarria edo fanatismo nabarmena azaltzen zaio ikustea nahi duen edozeini. Gure ekintzarik onenak eta gure ekintzarik beldurgarrienak, geuk, gizakiok, egiten ditugu, mila arrazoi ezberdinekin egiten

baditugu ere. Hor, esate baterako, Albert Camus disdiratsuak Frantziako erresistentzian burrukata, bere-gure gaurko zenbatezin sarraskiak salatzen. Ez sarraski erlijiosoak, sarraski-krimen logikoak baizik: “Entsaiu honen asmoa geure giroko errealitatea ezagutzea da; hori, krimen logikoa da... Ulertzen da: 50 urtetan 70 milioi gizaki eruziak, uztarperatuak edo erahilak izan diren garai bat, epaitua izan behar da... Baina, askatasun ikurrinpean diren jopukanpuek, gizaki maitasunean edo gizadi-gaineko atseginean zuritutako herri sarraskiek, epaiketa, zentzu batean zapuzten dute.” (L’homme revoltè)

Besterik ez, oraingoz, KAI-ENE Elizaz Nazkatutakoen Elkarte osatzen duzuen nere elgoibartar jatorrei, lagunkiro, Agur hau amaitzeko.

Roman Garate

Eskutitzak ez dira makinaz orrialde erdi baino luzeagoak izan behar. Luzeagorik iritsiko balitz, zuzendaritzak erabakiko du moztea edo ez argitaratzea.

Pinturas Elgoibar



Fermin

- Pinturak
- Enpapelatuak
- Gotelé
- Igeltsuzko dekorazioak
- Lurrak
- Pintura japoniarra, etab.

Urasandi z/g (Anayak etxea)
Tel: 74 39 91



24 orduz zuekin

Arrate ☒ 212 (20.600) Eibar
☎ 12 01 61/73 Fax 12 01 73




Aste honetako erretratua Felipe Gabilondok lagatakoa da. Berau, 1926. urteko uztai-lean atera zuten. Dagoeneko gehientsuenok hasiko zineten erretratu honen zergatia galdetzen, erretratu honek elizak duela 67 urte zuen itxura baino ez duela erakusten salatzen. Ez ba! Badu bitxikeria bat, eta ez nolanhikoa gainera! Minutu erdi daukazue erretratua goitik behera begiratu eta zotina kenduko dizuen zerbait aurkitzeko.

Pasa da minutu erdia. Goitik hasi zaretenok berehala ohartuko zineten elizaren puntan, bere bizitza gehiegi estimatzen ez duen gizonezko bat dagoela. Gizonezko hori "Escalatorres Puertollano" taldekoa dugu. Honek, beste zeregin hoberik ezean, inguruetako dorreak igotzen pasatzen zuen denbora. Askotan aritu izan gara minazuloetako edota andamioetan gora eta behera ibiltzen diren langileen langintza gogorraz. Hauei arrisku ttantarik kendu barik, orain arteko ogibide arriskutsuenarekin topo egin dugulakoan gaude.

Ez dakigu zein teknika eta zernolako materiala erabiliko zuten elizaren puntara igo eta zezen banderileroa bailitzan lasai asko egoteko, baina, gure baserrietako katu batek baino gehiagok gora iritsi aurretik buelta baietz eman egingo genuke apostu.

Inork bere katuarekin aproba egin nahiko balu, hilabeteko soldata mahai gainean jartzeko prest gaude.



Andoni Gisasola
ALBAITEROA
 k / Barrena 16
 EIBAR Tel. 12 19 86



GOZOTEGIA
 San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

*Eskulanean
 saiatzen gara*
 Pastelak
 Tartak
 Izozkiak
 Bonboiak

PU
BLIZI
TATEA
74 41 12

San Lazaro egoitza

Etxe berri eta nahiko dotorea da San Lazaro egoitza. Batek daki bertan bizi diren 42 edadetuak zergatik etorri diren bertara, baina gizonezkoen kasuan, bakardadeak eraginda izaten da gehienetan. Emakumeak, ordea, gizonezkoak baino zaharragoak dira edadez, eta normalean beraiek baino lur jotago heltzen dira San Lazarora. Asko alargunak dira, beste batzuk etxeke ezinikusienatik etorri dira eta beste batzuk, ordea, beraien burua zaintzeko gaitasun ezagatik.

Maalako elizaren babespean egon izan da beti San Lazaro egoitza. Oraingo egoitza berria eraikitzerakoan istilu ugari izan zen bere kokapena zela eta baina, azkenean, tradizioari eutsiz, Maalako elizari atxekia egin zuten. 1986. urteko San Anton egunean inauguratu zuten.

Denetarik dauka hotel itxurako zaharren egoitza honek. Beheko solairuan, sukaldea, garbigailuak, kalderak eta despensa. Lehen pisuan, zaharrentzako egongela edo telebista gela, jangela eta sarrera. Etxeak dituen beste hiru solairuetan, berriz, logelak daude. Guztira 23 gela dira; bainugela dute guztiek eta telebista aparailua gehie-

nek. Solairu bakoitzean bost egongela daude baina apenas ez dira erabiltzen, zaharrek beheko telebista gelan denak batera egotea nahiago izaten baitute. Azken solairuan sei ohe dituen sendagela dago eta monjen logelak.

Momentu honetan 42 pertsona edadetu dago San Lazaro egoitzan bizitzen. Oraindik bi ohe libre daude baina laster izango dute inkilino berria. Bertan bizi izateko bi baldintza bete behar dira derrigor: 65 urtetik gorakoa izatea eta, Gipuzkoan jaio edo bizi izatea. Herritarrak beti dauka lehentasuna baina lekurik balego kanpotar bat etor daiteke bertan bizitzera.



↳ Emakumeak gizonezkoak baino lur jotago heltzen dira.

LOPEZ


IZOZKIAK
CROISSANTAK

San Bartolome 4

kalamua S.D.A.D.COOP.

GARBIKETA ZERBITZUA
PERTSONA NAGUSIEN
ETA EZINDUEN ZAINKETA.

Tel: 74 22 72 - 74 24 48.



Salvador Celaya

ITURGINTZA

BILTEGI ETA BAINUGINTZA
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK

Errosario 22. Tel: 74 04 94

Dirulaguntzak eta prezioak

Diru aldetik, lau laguntza mota ezberdin ematen ditu Foru Aldundiak, pertsona bakoitzeko eta hilero. Pertsona bakoitzaren kostua kalkulatu ondoren aldundiak emandako diru laguntza kendu eta gelditzen den hori egoitzan bizi den edadetuak ordaindu behar izaten du (prezio erreala). Dena den, herritar batek 53.000 pezeta gehienez ordaindu behar duela erabaki du Udalak. Kanpotarra izanda, ordea, prezio erreala osorik ordaindu behar da. Egoitzan dagoen pertsonak ezingo balu prezioa ordaindu, bere familia edo bere herriko Udala egingo litzateke gastu horren kargu. Herritar baten kasuan, bere sarreraren %75a egoitzari eman beharko lioke. Gelditzen dena, 12.000 pezeta gutxienez, pertsonaren gastu pertsonaletarako



↳ Telebista ikusten, irakurtzen, kartetan edo pasiatzen igarotzen dute eguna.

uzten da.

Egoitzan lan egiten duten pertsona guztiak elgoibartarrak dira. Denera, astean zehar eta aste-bukaera eta jaiegunetan lan egiten dutenak 16 langile dira. Hauezz gain, zuzendaria, Caridadeko

lau monja eta egoitza zaharrean lan egiten zuen emakume bat daude. Monja batek erizain lanak egiten ditu, beste bat sukaldeko arduraduna da eta orokorrean etxearen gainbegiraketa egiten dute. Langileen artean, sukaldariak, garbitzaileak, zaintzaileak eta arropa garbitzaileak daude. Zaintzaile batek gaueko txanda egiten du edozein larrialdi edo beharri erantzuteko.

Osasun arloa

Egoitzan daudenen artetik, 15 pertsona ezin-
duak dira. Aldundiak

mediku bat bidaltzen du egoitza guztietara, zahar bat sartzen denean haren azterketa egin eta ez ndua den ala ez erabakitzeke. Normalean, ordea, Anbulategiko bi mediku etortzen dira egoitzako edadetuak zaindu eta aztertzeraz.

Egunero hiru jatordu egiten dituzte, eta arratsaldeko merienda aukerakoa izaten da. Iluntzeko 8ak aldera afaria izaten da eta gaueko 10etan egoitzaren atea isten dira. Dena den, etxeratzeko ordua alda daiteke; baldintza bakarra aurrez abisua ematea da.

EDADETU BAKOITZEKO KOSTUAK (Hileko):

Ezinduren kostua	149.000
Besteen kostua	99.000

ALDUNDIAREN LAGUNTZAK (Hileko)

Pentsioarekin.....	20.000
Pentsiorik gabe.....	35.000
Ezindua eta pentsioarekin.....	60.000
Ezindua eta pentsiorik gabe.....	75.000
AURREKONTUA	46 milioi

TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38

INTERIORES

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

PUB

LA TANTZ

elgoibar

Zahartzaroa: etxean ala erresidentzian?

Hasteko, uste dugu, arazo honen aurrean, adineko gizabanako edo bikote bakoitzak aztertu beharko lukeela zein egoera fisiko, sikiko eta familiarrean aurkitzen den, eta horren arabera erabaki, berarentzat/beraiantzat gehien komeni zaiona/zaiena. Horregatik guretzat egokia dena, beste batzuentzat agian ez da, egoera desberdin batean aurkitzen direlako hain zuzen ere.



Gu, gaur egun, Jainkoari esker, gai gara, azkenengo 50 urteotan elkarrekin bizi garen etxean (bertantxe ilusio handiz landatu bait genuen fruitu ederrak ematen ari den zuhaitza), jarraitzeko bizi izaten. Nola bizi gaitezke bakarrik etxe batean? Bada, lehendabiziko baldintza osasuna izatea da eta hori gure alde izan dugu orain arte. Ondoren elkar lagunduz, eguneroko gurdi arina edo astuntxogoa, pozgarria edo goibel xamarragoa baina itxaropentsua, uzta- rri batetik eta xede bakar batez erama-

naz. Beraz, etxeko lanak, erosketak eta eginbeharrak elkar- kidetzan eginaz, eta kezakak, baina baita poztasunak ere bion artean bizi izanik.

Zorionez edo zoritxarrez geroa ez dago gizakiaren menpean, gurea ere ez dagoenez ziu- rta- tuta noski, biok elkarrekin etorkizu- nari leihoak zabal- tzen ahalegintzen gara egunero, batzu- tan nekeza izan arren, munduak berak ere ez bait du zenbaitetan poztasun haundirik ematen.

Juanito Arrieta



Orain dela bost urte Amerikatik etorri nintzen elgoibartar bat naiz. Sao Paulo hirian, Brasilen, bizi izan naiz 40 urte, eta orain, San Lazaro zaharren egoitzan bizi naizenez, sarritan egiten dizkidate galderak, etxe honetako bizitzari buruz nik zer pentsatzen dudana jakiteko. Hauentzat badaukat nik zer erantzun.

Mundua erabat aldatu da eta soluzioa erresidentziak dira. Emakumea lanean hasi zen eta hau izan da gertatu zaionik onena. Honegatik, seme-alaba askok ezin dituzte zaindu gurasoak zahartzarora iristean, eta gaixotasunak batzutan luzeak izaten dira, eta...

Autoa izan da beste arrazoi bat seme-alabak gurasoengandik banatze- ko. Ia familia guztiek dute kotxe bat, eta, noski, ez da kalean aparkatuta edukitzeko. Asteburua iristean gazteek kanpora irteten dute kotxean eta zaharrak etxean gelditzen dira ezin dutelako. Eta orduan halako planteamenduak egiten dituzte: "Oporrak gaizki pasatzen ditugu, zuekin pentsatzen, zerbait gertatuko ote zai- zuen beldurrez, etab. Gai- nera erorketaren bat, edo beste zerbait, zuen edade- an... Bazkaria prestatze- koan zerbait erori eta sute bat sortzen bada edo... Zuek ondoen erresiden- tzia batean egongo zinate- kete. Jubilazioagatik kobratzen duzuenarekin ordain dezakezue, eta horrela, denok lasaiago

egongo gara. Jakiteko kuriositatea daukazuen guztioi, hitz gutxitan esango dizuet, Erresidentzia ehunetik ehunera dagoela. Oso ondo ematen digute jaten, oso ondo benetan! Garbi- tasuna, denok dakizuen bezala, oso ona da. Bi pertsonantzat gela eder bat, bainu eta guzti, etab.

Mojak gure lagunak dira eta ikusi egin behar da zelako ardura eta mai- tasunarekin zaintzen gai- tuzten. Ez dago bereizke- tarik gure artean; denok berdina gara eurentzat. Ez daukat hitzik esplika- tzeko bertako langileek gurekin egiten duten lana. Gauaz ere, zerbait behar badugu, tinbrea jotzea nahikoa dugu, eta bereha- la, goardian dagoena, behar duguna emateko prest daukagu.

Denok dakigu hobere- na bakoitzaren etxea dela, baina asko gara, arrazoi desberdinengatik, hori ezin dugunak disfrutatu, eta garai hauetan gero eta gehiago izango gara. Horretarako soluzioa hau da: Zaharren Egoitza.

Esperanza Odriozola

E TA ZURE USTEZ?

Zahartzaroa: etxean ala erresidentzian?




Begoña Arriola
53 urte, etxekoandrea
Erresidentzian oso ondo daudela esaten dabe, baina etxia goxuagoa dala beintzatzen jata neri. Seme-alabek ezkonduetakoan beren etxian nahi izaten dabe egon.



Iñaki Murua
53 urte, jubilatua
Etxean da naturalena eta normalena, baina izan daiteke zeozegatik erresidentzia egokiagoa izatea. Pertsona ezindu batentzako zainketak hobek dira erresidentzian.



Imanol Aranbarri
30 urte, mekanikoa
Hobeto etxian. Kasuak daude, baina ondo badaude etxian onena. Bakarrik egonda diferentea da, soltero bada edo horrelako zozer izanda, diferentea da.



Javier Fernandez
31 urte, langabetua
Familiaren araberrakoa da, baina, nire ustez, etxean egon beharko lukete. Pertsona bakoitza desberdina da. Edade batera heltzean, nahiko zaila egiten zaigu beraiek ulertzea.



Elixabet Baskaran
32 urte, klinika auxiliarra
Ondo nagoen bitartean etxean, baina gaizki egonda lekuren batean, ospitalean edo erresidentzian. Gauza naizen bitartean, nere etxean.



Jesusa Mandiola
51 urte, etxekoandrea
Norberaren etxian onduen. Zeure etxia da eta hantxe zaude ohituta. Norberaren burua zaindu ezin danian, igual erresidentzia onena.



*Urkizu Pasealekua, 11.
(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).
Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04*

OSASUNDEGIA

1- Alergologia	9- Ortodontzia
2- Kardiologia	10- Otorrinolaringologia
3- Zirugia	11- Pediatria
4- Zirugia maxilo faziala	12- Sikiatria
5- Dermatologia	13- Radiologia
6- Ginekologia	14- Traumatologia
7- Laborategia	15- Urologia
8- Barne medizina	



ALUVITEL^{SL}
**ALUMINIO AROZTEGIA
ETA PVC**

- Aluminiozko leihoak
2 koloretan
- "Rotura de puente
termico" leihoak
- Bainu manparak

Santa Ana 3 Tel: 74 36 34

Santiagora bidea egiteko erraztasunak

1993. urtea
Conpostelako Urte Santua dela eta, Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuak erraztasunak emango dizkie Santiagoko bidea egin nahi duten 65 urtetik gorakoei. Gaiari buruz zerbait gehiago jakin nahi duenak Elgoibarko Udaleko Ongizate Zerbitzuko telefonoetara hotsegin dezake:
74 37 36-74 10 08.

Pintura Lehiaketa Plaentzin

Plaentziko Udalak ageriko pintura lehiaketa antolatu du datorren apirilaren 25erako. Lehiaketaren gaia Soraluze izango da eta nahi duen guztiak har dezake parte. Lehiaketak 14 urte arteko eta 14 urtetik gorakoen mailak izango ditu. Azken honetan, irabazleak 60.000 pezetako saria jasoko du eta bigarrenak, berriz, 30.000 pezetakoa. Izen-ematea lehiaketa egunean bertan egingo da Udaletxe beheko lokaletan, goizeko 9etatik 10ak bitartean.

11 elgoibartar omenduko ditu Gipuzkoako Odol-emaileen elkarteak igandean

Datorren igandean Zaldibin egingo den Gipuzkoako Odol-emaileen asanbladan 11 elgoibartar omenduko dituzte 25 aldiz baino gehiagotan odola emate-agatik. Omenduei zilarrezko garaikur bana emango zaie eta honako hauek dira omenduak: Jose Maria Leiaristi "Urtia", Mari Luz Izagirre, Jose Luis Elizburu, Maria Aranberri, Jose Inazio

Korta, Sabin Argarate, Jose Mari Balanzategi, Jose Gonzalez, Lorenzo Arregi, Mari Karmen Azpiazu eta Karmele Gabilondo.

Zaldibiko asanbladara joateko autobusa antolatu da, eta igandean, goizeko 9,30etan aterako da King-kongeko zubitik.

Mendaroko Ospitaleak gaixoentzako bisita kopurua murriztuko du

Mendaroko Eskualde Ospitaleak, gaisoen geletan jende pilaketarik ez sortzeko eta azken finean, zerbitzuen kalitatea hobetzeko, plantarako bisitarien sarrera sistema erregulatzea erabaki du. Hemendik aurrera 12 urtetik beherako haurrek ez dute unitatean sartzerik izango eta pertsona nagusi

batekin sarreran itxaron beharko dute. Gaiso bakoitzak pertsona bat baino ezingo du berarekin izan eta honek bisita txartela izan beharko du.

Bisiten ordutegia, 15,00etatik 21,00etara bitartean izango da eta tarte honetan bi bisitari gehienez izango ditu gaiso bakoitzak.



Garbiñe Edergintza



- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektrikoa eta hotzean.
- Solariuma

P.M. Urruzuno 27. Tel: 74 31 32

LODOSO LEHIOAK

BALKOIRAKO


ALUMINIOZKO ARMARIOAK



Ermuaranbide 16. ☎ 74 34 90

Txikilibakioren Udaberriko alea kaleratu da

Elgoibarko Pilar, Ikastola eta Herri Eskolako O.H.O.ko ikasleek Txikilibakio aldizkariaren beste ale bat kaleratu dute. Udaberriari eskainitako ale honetan O.H.O.ko ikasleek idazlan, erreportaia, marrazki, bertso eta denborapasak burutu dituzte. Txikilibakio hiru hilabetero kaleratzen da eta 1.300 ale banatzen dira ikasle guztien artean. Inprenta gastuak Elgoibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaintzen dituzte.



Elgoibarko Gida

Elgoibarko Gida 93, etxe guztietan banatu da dagoeneko eta bertan herriari buruzko edozein informazio baliagarri eskaintzen da. Udal Kultur Zerbitzuaren lanaren fruitu da gida hau eta DYCA izeneko enpresa arduratu da haren finantziarioaz. Elgoibarri buruzko historia, jaiak, monumentuak, zerbitzu orokorrak, hezkuntza, garraioak eta abar lantzen ditu gidak.

Zirkulazio etenaldiak Bernardo Ezenarro kalean

Gas naturalaren obrak direla eta, egunotan moztuta egon da norabide bakar batean Bernardo Ezenarro kalea. Astearte goizetik kalearen bi norabideak zabalik dauden arren, pasoa eman arte ezin daiteke bertatik zirkulatu.

Udalaren oharra

Elgoibarko Udalak, 1993.eko lehen hiruhilabeteko zabor, ur eta estolda erreziboak ordaintzeko azken eguna apirilaren 30a dela jakinarazi nahi du.



Egunkari askok bezala, elgoiBARREnek ere, bere lehendabiziko bisita izan zuen pasa den hilean. Honako hauek Udal Euskaltegiko ikasle batzuk dira eta aldizkarikook beraiei gure lanaren gorabeherak azaldu ondoren, aldizkaria non eta nola egiten den ikusi nahi izan zuten.

CAFE
Puff
TEATRO
Pub PELOUSE
San Frantzisko, 43
Tel: 74 20 40

foto | azkue
ANIVERSARIO
20
1973 - 1993
URTEURRENA
San Bartolome 26, Tel. 74 08 48

BATZOKIA
Jatetxea-Taberna
P. Muguruza 8. Tel: 74 08 21

"Ikasketek norberaren gaitasunak garatzen erakusten dute"

Biologiako ikasketak bukatu ondoren Estatu Batuetan hiru urte pasatu zituen. Orain makina-herramienta sektorean lanean ari

da. Askotan bere buruari zer egiten duen lan honetan galdetu arren, gustora dagoela dio.

-Zergatik aukeratu zenituen biologiako ikasketak?

- Garai hartan pare bat aukera neuzkan; beterinaria eta biologia. Etxean esaten zidaten elektronika edo medikuntza egiteko. Baina, azkenean biologia aukeratu nuen, gertuen zegoena zelako. Bestela, Zaragozara joan beharko nukeen neska hemen utzita...

- Ondoren Estatu Batuetan egon zinen... Kontatu pixka bat zer egin zenuen han.

- Lizentziatu ondoren Los Angeles-era joan nintzen sei hilabetetako ikastaro batean ingelesa ikastera. Bukatzean, biokimikako espezialidadean tesiren bat egitea nahi nuen. Baina "papeleoarekin" berandu ibili nintzen, eta produktu toxikoei buruzko urtebeteko ikastaro bat egin nuen. Klasera joaten nintzen gauez, eta egunez egun erdiko lana hartu nuen Unibertsitatean, piz-zak egiten... Hau bukatu ondoren Los Angeles-en lana egiteko permisoa neukan Gasteizko enpresa batek han zeukan distribuidoraren bidez. Horrela beste urtebete pasa nuen...

- Zer desberdintasun ikusten dituzu Estatu Batuetako ikasketen eta hemengoaren artean?



"Ate guztiak zabalik eduki eta esperientziak hartu behar dira toki guztietatik"

- Bai... Oso desberdinak dira. Nire ustez errazagoa da karrera bat ateratzea Estatu Batuetan, erraztasun gehiago ematen dituztelako. Han kontrol txiki batzuk egiten dituzte astero edo bi astean behin. Hauek aprobatuz gero materia libratzen duzu. Era honetan errezagoa da ikastea, asimilatzea eta aprobatzea. Medioak ere askoz hobeak dira: Bekak, laborategiak, ordenagailuak, e.a.

- Bestalde, kanpoan egin zenuen denboraldia esperientzia bezala zer iruditzen zaizu?

- Hiperpositiboa. Etxetik

kanpo zaude zeu bakarrik gizarte, kultura, hizkuntza... ezezagun batean eta aurre egin behar diozu. Pertsonalki asko heldutzen zara.

- Orain lanean ari zara... Zer lan egiten duzu, eta non?

- Gasteizen nago lanean lehen aipatu dudan enpresako sail komertzialean. Baina arlo teknikoa ere landu behar dut, eta hori pixka bat lantzeko 2 edo 3 urteko epea daukat. Enpresa honetan fresadorak egiten dira, kontrol numerikoa, eta manualak. % 80a baino gehiago esportaziorako lana da.

Horregatik, ingelesa beharrezkoa dut lan honetan.

- Biologia munduarekin erlazioa lukeen lanen bat nahiago zenuke?

- Zaila da esatea. Lizentziatura atera eta gero denok uste dugu hori izango dela gure ogibidea. Esango nuke badaukadala "gusanillo" hori oraindik. Baina probatu egin beharko nuke lehenengo. Zeren lizentziatu nintzenetik inoiz ere ez naiz biologia artean ibili. Printzipioz ate guztiak zabalik eduki eta esperientziak hartu behar dira toki guztietatik.

- Denboran atzera egin ahal izango bazenu, ikasketak aukeratuko zenituzke berriz? Zeintzuk? Zergatik?


- Bai. Gizarte honetan tituloak beharrezkoak dira, itxura denez, "titulitis" asko bait dago. Baina nire ustez esperientziak gehiago balio du. Bestalde, Unibertsitateak edo eskola teknikoek norberaren gaitasunak garatzen erakusten dute.

Nik momentu honetan 3 urtetako karreratxo tekniko bat aukeratuko nuke. Informatika edo elektronikarekin erlazonaturiko zerbait. Hori bukatu ondoren, pare bat hizkuntza ikasiko nituzke.

Agur Miren Barandiaran.

Segundo Raigoso

Herriko Antzokiko arduraduna



- Zer moduzkoa da atezaintza lana?
- Ondo dago, eramangarria da.
- Ematen dituzuen filma guztiak ikusteko akomodatzen al zara?
- Bai, denak ikusten ditut.
- Zer da lanean gertau jatzun gauzarik gogorrena? - Arazo asko gazteekin, erre egiten dute... gora igo behar izaten da.
- Inor "in-fraganti" harrapau al dozu? - Orain ez dira horretara joaten, beste garai batean desberdina zen.
- Eta zeu ez al zinen zinean kolatzen gaztea zinenean? - Orduan karneta eskatzen zuten sartzeko, ni altua nintzen eta pasatu egiten nintzen, baina kolatu, ez nintzen kolatzen.
- Filma pornoak gustatzen zaizkizu? - Ba, badagoz onak ere, elkarrizketak dituztenak...
- Denbora gehiegi ez al daramate inzonorizazioaren arazoarekin? - Irailerako egingo dutela uste dut, denbora behar da, aire girotua ipini behar dute.
- Auzokoek garraxi gutxi egiten dutelako ala Udaletxea gortu egin delako? - Auzokoak kexatzen dira, baina Udaletxeak ez du kasurik egiten. Ni etxe batean egonda nago eta kristoren zarata entzuten zen.
- Diru gehiago "peli"etarako eta gutxiago "poli"entzako?
- Zenbat eta diru gehiago pelikuletarako are hobea. Askotan pelikula berandu datoz ez delako zine komertziala, herrikoa delako.
- Ongarriko filmak ala komertzialak? - "Ongarri"koak aparte dira. Komertzialek problema bat daukate: loteetan datoz eta bi pelikula onetatik sei eskasak dira.
- Zuri ere krisia iristen zaizu? - Zinean asko igartzen da. Jeitsiera haundia dago.
- Zergatik ez duzue zinearen goiko aldea zabaltzen? - Behekoa bete arte ezer ez: zikindu egiten da, jendeak erre egiten du...
- Antzerkia ala zinema? - Antzerkia ere gustatzen zait, hemen ere antzerki ona egon izan da, baina jendea ez da joaten.
- Amaiera zorionsudun istorioak atsegin dituzu? - Noski, tristea baino hobea da.

Lorea Perez De Albeniz

BERTSOTAN

ASTE SANTUKO OPORRAK

Doinua: Antton eta Maria

Elgoibarko plazetan
 nolako mugida
 ume pila bat ginen
 gira eta bira
 beste batzuek berriz
 juan urrutira
 pixka bat luzeago
 balira sikira
 oporretako egunak
 laster joaten dira (BIS)

Aste guztian zehar
 parre ta algara
 oporretan genuen
 kristoren patxada
 baina azkenean heldu
 gara bukaerara
 Astelehenean berriz
 gu ikastolara
 ea noiz heltzen geran
 udakoetara (BIS)

Bertsu Eskola

Autoedizio eta Diseinu Grafikoa

Zubiaurre

Sta. Klara 40-3. Tel: 744444.

PINTURAK

- Fatxadak
- Komunitateak
- Mota guztietako lanak

San Roke 30 behea Tel. 74 36 52

Duathloi Txapelketan parte hartzeko federatu egin behar da

Datorren apirilaren 25ean Elgoibarren ospatuko den "Gran Premio Radio Estudio" Euskadiko Duathloi Txapelketan parte hartu nahi duten elgoibartar guztiek federatu karneta eskuratu beharko dute.

Karneta lortzeko 2.500 pezeta ordaindu behar dira eta 4etatik aurrera egin ahal izango da kiroldegian. Parte hartzaileek ez dute izen ematearen 1.500 pezeta ordaindu behar izango antolatzaileek hartu baitute gastu hori bere gain.

Txirrindulari lasterketak

Apirilaren lehen astebukaeran Telleriarte herrian korritu zen "Federakunde Saria"n Josu Unzueta *Zaer Motor* taldeko txirrindulari elgoibartarra seigarren heldu zen helmugara.

Bigarren urteko kadeteen kategorian, "XVI. Hesparru Froga"n Alex Galarraga beste sei txirrindularirekin ihesaldian zegoela eta helmugarako 4 km. baino falta ez zirenean, errobera zulatu zitzaion. Helmuga pasa zuen lehen elgoibartarra *Muebles Olatz* Taldeko Pedro Cerviño izan zen, 14. postua egin zuelarik.



Amaia Rubio:

Bigarren postua Zarauzko hondartzako txapelketan

-Noiztik zabilta futbolean?

- Ekipoan jolasten 3. mailan hasi ginen. Saskibaloian eta eskubaloian ere jokatzen genuen baina geroago 4. mailan edo, futbolean bakarrik jokatuko genuela erabaki genuen. Gehiago gustatzen zitzaidan futbola.

-Ekipo ona duzuela esaten da...

- Ba, bueno... Zarauzko hondartzako futboleko bigarrenak gelditu gara. Maila nahiko ona daukagu. Gu baino nagusiagoen kontra jokatzen dugu eta txikitatik ibili gara futboleko jokatzen. Nahiko ondo ezagutzen dugu kirol hau.

-Gogor entrenatu behar al izaten duzue? - Astean bi egunetan, zazpiretatik zortzira edo zortzi t'erdietara. Egun batean entrenamendu fisikoa egiten dugu, korrika batez ere, eta, bestean korrika piska bat eta baloia erabiltzen ikasi. Batzutan partidu bat ere jokatzen dugu.

-Ze kategoriatan zaudete orain?

- Orain jubeniletan. Kadeteetan geundenean, zazpigarren mailan ezik, ia urtero irabazi genuen. Behin



eskualde mailako txapelketan, Eibarko taldearen aurka irabazi genuen eta, beste herrietako talderik ez zegoenez, gu izan ginen Euskadiko txapeldunak. Orain, Zarauzko hondartzako partiduak bukatu dira eta entrenatzaileak lagunarteko partiduak antolatuko ditu. Nagusien aurka jokatzen ahaleginduko gara, gehiago ikasteko.

-Ze etorkizun ikusten diozu nesken futbolari? - Nik uste dut jokatzen jarraituko dugula. Badaude hemen inguruan zenbait talde.

-Kirol gogorra dela iruditzen zaizu? - Ba... ez. Ostikadak hartu arren, norberak ere ematen ditu. Batzutan min har daiteke baina ondo sufritzen dugu.

● Adina: 15

● Elgoibar, Erreala ala Athletic? Elgoibar.

● Mutilen aurka ala mutilekin jokatu? Mutilen aurka

● Jokalari bat? Laudrup. Bartzelonakoa

● Kinielarik egiten al duzu? Batzutan.

Iraegui
ERROTULAZIOA
☎ 74 39 52
San Antolin 74 37 06

Tik-Tak
HAUR ERROPA DENDA
Errosario 21, ☎ 74 17 15

rambarri
ASEGURUAK
San Bartolome 15
Tel. 74 3037

Alberto Revueltak gutxieneko marka egin du Europako Txapelketarako

Apirilaren hasieran Anoetan korritu zen 10.000 metrotan parte-hartze libreko lasterketan Ego-Toki Taldeko Alberto Revuelta elgoibartarrak Europako Junior Txapelketan parte hartu ahal izateko gutxieneko marka lortu zuen 30 minutu eta 55 segunduko denborarekin. Europako Junior Txapelketa Donostian ospatuko da, uztailaren bukaeran, Anoetako atletismoko pista eta futbol zelaiaren inaugurazio egunean, hain zuzen.

Ego-Toki saritua

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak Kirolari eta Kirol Elkarte onenari urtero ematen dion saria, aurten Elgoibarko Ego-Toki Atletismo Elkarteari eman dio. Pasa den martxoaren 30ean, Ego-Tokiko Juan Mari Iriondok eta Jose Igna-



cio Elkoro-Iribe, Elgoibarko Alkateak, Joseba Arregi Kultur Sailburuaren eskutik jaso zuten saria. Sari banaketa ondoren bazkaria izan zuten Ajuria Enean. Ego-Tokiko kideek esan digutenez, Euskal

Herriko elkarte guztien artetik beraiena aukeratzea harro egoteko gauza da, 30 urtetan egindako lanaren errekonozimendua suposatzen duelarik.

Ikasgol taldea bigarren Zarauzko txapelketan

Ikasgol izeneko honako elgoibartar neska talde hau, Gipuzkoako Futbol Txapelketan, jubenilen kategorian, aritu zen apirilaren lehen astebukaeran. Zarauzko hondartzan jokatu zuten partiduan 4-2 galdu zuten *Bost Axola* zarauztarren aurka. Elgoibartarrek, Zarauzko hondartza jendez gainezka zegoelarik, kiroltasunagatik kopa jaso zuten, bigarren gelditzeagatik beste bat eta, taldeko kide bakoitzak zilarrezko domina bana. Partidua galdu arren, *Ikasgolekoak* oso pozik daude lortutako bigarren postuarekin.



MUXI kirolak

Aukera haundia
kirolarien zerbitzuan

Antonio Arrillaga 14 behea
Tel. 74 01 80

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal

URKIDI
AHOLKULARITZA
ASEGUEROAK

Kalamua 12
ELGOIBAR
Tel-Fax:
74 18 91

ZOBEL ZB

KORTSETERIA, OSAGARRIAK
ETA BARRUKO ARROPA.

San Roke 13 behea. Tel: 74 34 01

Mutxikin: kaletarrek sortutako auzoko elkarte

Kuadrila baten neurrira egindako elkarte da, tamainaz zein izakeraz. Mutxikin sortu aurretik Karakate soziedadeko kide ziren baina, 1980. urte inguruan beraien kabuz beste elkarte bat sortzea erabaki zuten. Beraien kuadrilarentzat soil soilik sortu zuten Mutxikin elkarte.

Gaur egun, beraz, ezinezkoa da Mutxineko bazkide izatea kuadrilako kidea izan ezean. Urte guzti hauetan bazkide berri bakarra sartu da beraien elkartean; hain zuzen, kanpoan bizi zen kuadrilako bat. Semeek ere ezin dute bazkide izan, baina aldatu beharko duten araua da hau bestela, desagertu egingo litzateke elkarte. Giro familiarreko elkarte da guztiz. Bazkide kopurua urria da eta lokala ere txikia. Jaunartze eta familiako ospakizunak egiteko da aproposa. Bazkideren batek horrelako zerbait

egitea nahiko balu, eguna eskatu eta gainontzeko kide guztiak ez dira egun horretan elkartetik agertzen.


Elkarteak duen izen xelebrea kasualitatez aukeratu zuten. Inork ez zekien zein izen jarri elkarteari eta honela batek, hiztegi bat zabaldu eta han ikusi zuen izen ezagunena "mutxikina" hitza zenez, huraxe jartzea erabaki zuten. Gerora, lokala dagoen tokian sagarrondo ugari zegoela

jakin zuten eta kasualitate bada ere, sagardo dastaketa eta lehiaketa antolatzeari jardun zioten zenbait urtetan. San Bartolome jaietan egiten zen sagardo dastaketa eta makilau tortila hoberenak prestatzen zituztela gogoratzen dute. Azken aldiz, 1988. urtean antolatu zuten, baina gaur egun beste elkarte bat arduratzen da antolaketaz.

Guztiz errespetatzen diren arauak dituzte. Ostiraletan ezin da emakume-

rik sartu, ezta bazkide ez den beste edozein ere. Ostiraletan kuadrilakoek bakarrik afaltzen dute bertan. Beste edozein egunetan, ordea, emakumeak eta lankideak sar daitezke eta sukaldeko lanak ere egin ditzakete.

Elkarte bezala gastronomia alorrean dira zaletuak. Klase guztietako platerak prestatzen dituzte. Baina espezialistak dira, gauza finak atontzen. Honen adibide da proposatu ditugun errezeta.



➔ Sukalde lanetan dira zaletuak Mutxikineko bazkideak.

LANGOSTINOAK MUTXIKIN ERARA

Osagaiak:

Langostino konjelatu kaxa bat, berakatza, olio, barra erdi koipe, 4 edo 5 limoi, perejila, gatza, whisky-a eta coñac-a

Nola egin:

Kristalezko ontzi borobil baten ertzean langostinoak hileran jarri, burua barrurantz begira dutela. Zartagin batetan berakatza oso fin txikitu eta oliotan frijitu. Berakatza doratu aurre-

tik sutatik kendu eta langostinoen ontziaren erdira bota. Langostinoei gatza eman ugari. Ondoren 4 edo 5 limoien ura langostinoei bota eta whisky eta coñac txorrostada bana gehitu. Perejila txiki-txiki eginda langostinoen gainean jarri. Laban sartu 180ºtan. Lantzean behin, koipea disolbatu ondoren, saldarekin langostinoak busti. Langostinoen buztanak tente jartzen direnean, jateko prest egongo da.

FITXA TEKNIKO

Sorrera urtea: 1980

Presidentea:

Txemi Etxeberria

Bazkide kopurua: 19

Urteko kuota: 18.000

Berezitasuna:

Elkarte kulturala

Helbidea:

Kalamua kalea

"Lazkao Txiki"ri Agur

*Ez dira oraindik
zortzi hilabete Joxe
Miel gure artean
izan genuela,
aurtengo abuztuan
hain zuzen ere.
Egun hartan Joxe
Miel bera,
Azpillaga, Ziarda
eta idazten ari dan
hau ginen kantu
lanak betetzeko
izendatuak eta hala
egin ere, ahal izan
genuen ondoen.*



AZKUE

→ lazko San Bartolometan izan genuen Lazkao Txiki azken aldiz Elgoibarren.(1992-8-29)

Neretzat hura ez zen saio bat gehiago izan, egun berezia izan zen hura. Mundu guztiak Lazkao Txikiz esaten zen hura gertutik bizi izateko aukera izan nuen. Lazkao Txiki ez zen bertsolaria bakarrik, pertsonaia handia zen, zabalik eta gora begira dagoen liburu bat zen Joxe Miel. Hizkera aberatsa, esaera zaharrak hitzetik hortzera, zitak, txistek, kontakizunak... Harekin egun bat pasatzea ikasbide ederra zen edonorentzat ere.

Gogoan daukat oraindik bazkalondoko saioa egin ondoren nola ondora etorrira esan zidan "bale haiz bertsoetako gazte, bale haiz". Ez zaiz-

kit hitz haiek sekula ahaztuko neri.

Egunaren bukaeran banatzeko ordua iritsi zen eta hola agurtu ninduen Joxe Mielek "ni zahartu egin nauk eta akaso ez haut ezagutuko, hik ikusten nauken lekuan ikusita ere kaso egidak".

Bai Joxe Miel; zuk esan bezala igandean topo egin genuen Lazkaon. Zuk ni ez ninduzun ikusi baina nik zu bai eta kaso egin nizun, agur egin nizun eta ez nere izenean bakarrik, Elgoibarko herri guztia- ren izenean baizik.

AGUR JOXE MIEL.


German Meabebasterretxea

LAZKAO TXIKIri

*Euskal Herriko bertso zugaitz,
triste ikusten diat nik
Lazkao Txiki maite gendula
ez bai dago zer esanik
beti kantari zebillen txori
fin ta garbia izanik
ez gendun uste gure artetik
hain azkar joango zanik*

*Gizon argi ta leiala gendun
gure Joxe Migel zena
euskal artista pare gabea
ta abertzale gizona
hainbat gozamen emanda joan den
langile bizkor zuzena
Euskal herriak ez du aztuko
Lazkao Txikin izena.*

Javier Arrizabalaga (Ziarda)



**CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak
Bainu manparak*

Urasandi 12 beheak
Tel-Fax: 74 04 89

KEMEN  **Belardenda**

**MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA**

San Bartolome 26. Tel: 74 40 31

17 Larunbata

19,30 ZINEA

"El guardaespaldas"

Zuzendaria: Mick Jacson

Aktoreak: Kevin Costner, Whitney Houston.

18 Igandea

16,30 ZINEA

"El guardaespaldas"

19,30 ZINEA

"El guardaespaldas"

19 Astelehena

19,30 ZINEA

"El guardaespaldas"

Z I N E A

"El guardaespaldas"

Frank Farmer elitezko bizkarzain bat da eta Rachel Marron, berriz, abeslari famatu bat. Burutik jota dagoen fan baten eskutitzak direla eta Rachel, Farmer bezalako zaindari baten beharrea aurkituko da. Tentsiozko momentu honetan inork ez du espero egoe- ra arinduko duen zerbait gerta daitekeenik. Baina hori da, hain zuzen, gertatzen dena biak maitemintzen direnean.

Z I N E A



DEBAN

BERTSOLARI GAZTEAK

Apirilak 17 gaueko 10,30etan
ZUBELTZU ZINEMATOKIAN

Eztitxu Arozena
Igor Elortza
Iratxe Ibarra
J. M. Irazu
Xabier Silveira

Hertz -  **Autobusak**
Rey Quiroga

GIDARIK GABEKO AUTO ETA FURGONETAK ALOKATZEN DITUGU



BILKETA-BANAKETA ZERBITZUA:
EIBAR, ERMUA, BERGARA,
ARRASATE, ZARAUTZ, DEBA,
ONDARROA ETA AZKOITIA



PREZIO BEREZIAK KONTSULTA ITZAZU

ERRESERBAK EGITEKO:
TFNOAK: (943) 74.36.50- 54 FAX: (943) 74.38.93

LANBROA



ORAIKO

JAUREGI

INPRIMATEGIA



KATALOGOAK-LIBURUXKAK
INPRIMAKIAK
TIPOGRAFIA ETA OFFSET
LIBURUDENDA-PAPERDENDA

San Frantzisko, 20.
Tel: 74 13 29

Etxebizitzak

Etxebizitza salgai Pedro Muguruza Etorbidean, Maala inguruan.
Informazio gehiago nahi baduzu deitu 74 12 39 telefonora.

Delineante langabetuak orduka edo jornada osoan lan egingo luke.
Deitu 74 34 01 telefonora. Iñaki.

Arregitorren garajea saltzen dut. Prezio interesgarria.
Tel: 74 27 39

Organu HAMOND bat. 8 baxu, bi teklatu eta sekzio ritmikoduna. 50.000 ppta.
Alberto: 74 14 94

Lana

Arte ederretako ikasleak (2. maila) GEOMETRIA irakasle bat behar du. Maila altua.
Carolina 74 44 51.

Magisteritza eta administrari tituludun irakasleok, O.H.O., L.H-1 eta euskarako klase partikularrak ematen ditugu.
Deitu 74 04 13 telefonora. Edurne eta Maitane.

Bi bizikleta motoreta saltzen ditut. BMX modelokoak.
Tel: 74 05 35

18 belozidatedun Mountain Bike bat saltzen dut. Kanbio sinkronizatuak, adarrak, "calapies"ak eta beste osagarri batzuk.
Prezioa: 38.000 pta. Astebukaeratan 74 15 35

Salerosketak

Tituludun irakasleak O.H.O.ko klase partikularrak ematen ditu.
Alazne Tel.:74 28 53

FORD FIESTA zuri bat saltzen dut, BI-AB. Prezio merkea.
Tel: 74 28 77. Jose

"Asolo Super-soft" (42zkb.) botak eta "Softex" txamarra saltzen dut. Prezioaz hitzegiteko,
Aritza 74 05 90.

Kontaktuak

Ingeniero industrialak matematika, fisika eta kimikako klaseak ematen ditu BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz.
Tel.: 74 13 11. Javier

MUY INTERESANTE-ko zenbakiak saltzen ditut. Zenbakiak dira: 2,4,8,9,...15,17,18,...80. NATURA-ko zenbakiak saltzen ditut. Zenbakiak dira: 4,5,...57,58,60. Biak oso ondo zainduta daude. Ahal bada, nahiago nuke loteten saltzea. Prezioa negoziatuko dugu.
Interesatuak deitu hona 74 26 09 (Roberto).


Bizikleta bat saltzen dut. BH 12 "Kanbio"duna. Prezioa negoziatzeko.
Tel: 945-28 94 81 Deitu 8etatik aurrera.

Musika egiten duen lagun talde bat gara. Lokalen bat alokatu nahi genuke entsaiuak egiteko. Alokatzeko moduan lokalik baldin baduzu, deitu 74 33 66 telefonora eta Josurengatik galdetu.

Gimnasia egiteko tresna saltzen dut. Muskuloak eta hankak indartzeko oso egokia. Prezioa negoziatzeko.
Aitor: 74 22 74 Egun osoz.

50. urteurreneko bazkaria 1943. urtean jaio direnentzat edo **50 urte** beteko dituztenentzat Anaitasun egunean bazkaria antolatzeko batzordea eratu da. Aurrerago egitarauari buruzko informazio gehiago emango da.
Batzordea

ZODIAK bat saltzen dut. Yamaha, 5 zalditako motorra. Neurriak: 3 x 1. Prezioa: 125.000 pta.
Tel.: 19 92 46 (Juanra)



Afari merkeak

- * Kazuelatxoak
- * Oilasko erreak (aurrez eskatu)

Urtebetetze gonbiteak

- * Txokolata eta pastelak

Arratsaldea pasatzeko

- * Karta joko eta berbetarako giro aparta

Aurrez enkargatu ezkerro, hobe!

Tel: 74 25 95

EIBARBUS

- BIDAIA NAZIONALAK ETA NAZIOARTEKOAK
- ESKOLA ETA ENPRESETARA JOAN ETORRIAK
- TXANGOAK, ETAB.

Isasi, 20 behea
Tel: 70 16 20 - 11 17 33
Fax: 70 16 20 **EIBAR**

SEAT IBIZA BERRIA



TEKNOLOGIA ALEMANA

**ZATOZ
BERRIKUNTZA
GUZTIAK
DESKUBRITZERA**

SEAT
Bai!

SEAT

Eibar Motor, S.A. Otaola hiribidea, 17 . Tel. 11 36 42 Eibar